



programia

Izena : Programia Formación y Consultoría S.L.L.

Helbidea: Colón de Larreategui 26, 7º A

Herria : BILBAO

Telefonoa : 902 540 575

E – mail. formacion@programia.es

Web Orrialdea : www.programia.es

Produktuaren deskripzioa. Zerbitzua.

PROGRAMIA teknologi aholkularitzako enpresa bat da, Sun Microsystems teknologietan espezializatua, bereziki Java eta Solarisen. Teknologia horietan bikaintasuna lortzeko, Iparraldeko eta Erdialdeko Sunen trebakuntzako zentro ofizial gisa eratu da eta Sun Partner Advantage gisa ezarri da. Fabrikatzailearen Trebakuntzako Aholkularitza Sailaren barruan, ASEC SP (Associate Sun Education Centre) eta ASER SP (Associate Sun Education Reseller EMEA zonarako) bihurtu da PROGRAMIA enpresa. Horrek esan nahi du Programiak ahalmena duela Sun teknologiei buruzko informazio guztia nahi duten guztien eskura jartzeko, sortzailearen eskutik lortutako informazioa. Horretarako, eskuliburu ofizialak eta fabrikatzaileak homologatu eta ziurtaturiko irakasleak ditu.

PROGRAMIAk Sunen eskutik jasotzen du teknologiari buruzko informazio guztia, eta teknologia horiek hedatzeko eta sustatzeko ardura du haren jarduketa-eremuan. Hori dela-eta, Programia soluziorik onena bilakatuko da teknologia horiek zehazki ezagutu behar dutenentzat. Garapen aholkularitzako soluzioa behar denean, Programiak TICONTRACK izeneko atala sortu du, Java, Solaris eta gure ustez horiekin lotuta dauden beste teknologia batzuekin lotutako era guztietako soluzioak emateko ahalmena duena.

Merkatuaren deskripzioa.

Programiaren eskaintza teknologikoa oso espezializatua da; hori dela-eta, behar teknikoen maila handiko merkatu-nitxo bati ematen dio erantzuna. Bezeroen artean, honako erakunde hauek daude: Lantik, Vodafoneren I+G zentroa, Arabako kalkulu zentroa...

Gainera, Bilboko Merkataritza Ganberarekin hitzarmena sinatuta, Programiak Java eta Solaris teknologietako masterrak eta ikastaroak eskaintzen dizkie enpresei oro har.

Sortzeko urtea.

2006

Oraingo

langileria.

8 + 2 freelance + 3
bekadun

Facturazioa.

243.398,11 €